

IRAKASKUNTZA-GIDA

2018/19

Ikastegia

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Atala

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

Ikastaroa

2. maila

IRAKASGAIA

25944 - Gizarte Langintzarako Gizarte Psikologia

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Gizarte Langintzarako Gizarte Psikologia ikasgaiak Gizarte Langintzaren Ardurapeko Prozesuak eta Arazoak moduluan (C modulua) kokatuta dago. Modulu honetako beste ikasgaiak Filosofia eta Gizarte Langintza (1.go maila), Antropologia eta Gizarte Langintza (1.go maila), Gizarte Langintzarako Psikologia (1.go maila), Soziologia eta Gizarte Langintza (1.go maila), Gizarte Egitura eta Estratifikazioa (2. maila).

Bigarren mailako ikasgaia da eta bigarren mailako lauhilabetean ematen da. Ikasgai oinarritzkoa da eta euskaraz eta erderaz eskeintzen da. 6 Ects-eko ikasgaia da, hau da, guztira 150 orduakoa: 60 ordu presentziarazko irakaskuntzarako eta 90 ez presentziarazko. Irakasgaiaren dozentzia Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologiari dagokio.

Irakasgai honetan honakoa ikasten da: Gizarte-psikologia: norbanakoaren eta taldearen elkarrenganako eragina. Sen ona eta jakintza zientifikoak. Nola ikasten dugu? Metodo zientifikoak aplikatzen dugu arazo psikosozialen azterketan. Ikerketako eta ebaluazioko diseinuak deskribatzen ditugu. Nola pentsatzen dugu eta nola eratzten ditugu iritziak? Informazioa prozesatzeko eta inferentziak eta iritzi sozialak sortzeko moduak; isuriak eta heuristikoak azpimarratuko ditugu bereziki. Nola alda ditzakegu sinesmenak eta jarrerak? Jarrerak eta jokaera. Norbanakoa taldean: taldeen funtzionamenduan, errendimenduan eta erabakiak hartzeko prozesuetan eragiten duten prozesu psikosozialak. Taldeen arteko harremanak: nola eragiten dute nortasunean, autoestimuan pertsonalean eta kolektiboan? Aurreiritzia, estereotipoak eta diskriminazioa. Defentsa pertsonaleko estrategiak estigmei eta aurreiritziei aurre egiteko.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

1. Gizakiak gizarte-ingurunean duen jokabidea eta pertsonen eta horien ingurunearen arteko harremana eratzten dituzten oinarritzko prozesuen eta elementuen ikuspegi psikosoziala ezagutzea. (M03CM01)
2. Psikologia sozialeko eta zientzia-metodologiako jakintzak aplikatzea arazo psikosozialen azterketan, eta sen ona eta jakintza zientifikoak bereiztea. (M03CM06)
3. Informazioa prozesatzeko, iritziak sortzeko eta hautemateko prozesuetan eragiten duten prozesu psikosozialak aztertzeke gai izatea, pertsona arteko gatazkak hauteman eta ebaluatu ahal izateko.
4. Jarrera, estereotipo eta aurreiritzi sozialak identifikatzea, bai eta horiek sortzeko eta aldatzeko mekanismoak ere, eta jakitea horiek zer eragin duten nortasun pertsonalean eta sozialean. Horrela, diskriminazioko eta gizarte-bazterketako egoeran egoteko arriskuan dauden taldeen beharren prebentzioan eta diagnosian aplikatu ahal izango ditugu. (M03CM05)
5. Nork bere burua ezagutzeko gaitasuna lantzea (bakoitzak bere balioak, jarrerak eta eskema kognitiboak hautemateko), bai eta enpatia ere, modu objektiboan eta/edo giza eskubideak errespetatuz aztertu ahal izateko etorkizuneko lan-jarduera. (M03CM07)

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

1. IRAKASGAIA.- GIZARTE PSIKOLOGIAK GIZARTE LANGINTZARI EGITEN DIZKION EKARPENAK
2. IRAKASGAIA.- GIZARTE PSIKOLOGIA: norbanakoen, taldeen eta ingurunearen arteko harremana. Azalpen-mailak. Motibazioa eragiten duten eta informazioa prozesatzeko oinarritzko printzipioak.
3. IRAKASGAIA.- GIZARTE PSIKOLOGIAKO METODOLOGIA: sen ona eta jakintza zientifikoak. Gizarte-psikologiako ikerketako eta ebaluazioko oinarritzko diseinuak.
4. IRAKASGAIA.- KULTURA ETA GIZARTE PSIKOLOGIA: kultura eta kultura-dimentsioak: psikologia transkulturala. Kultura-dimentsioak: Norbere buruaren kontzeptua. Komunikazio-estiloak.
5. IRAKASGAIA.- KOGNIZIO SOZIALA: Iritziak sortzea. Atribuzio-prozesuak. Kausalitatearen atribuzioak, isuriak eta heuristikoak.
6. IRAKASGAIA.- JARRERAK: egitura, neurria, funtzioak eta jarrera-jokaera erlazioa. Komunikazio pertsuasiboko elementuak. Jarrerak aldatzeko konbinazio-ereduak.
7. IRAKASGAIA.- TALDE PROZESUAK: errazte soziala. Alferkeria soziala. Desindibidua. Talde-polarizazioa. Talde-pentsamendua.
8. IRAKASGAIA.- TALDE ARTEKO HARREMANAK: nortasun soziala, pertsonala eta autoestimua. Aurreiritzi eta diskriminazio soziala, eta aurreiritzi eta arrazismo modu berriak. Estigma sozialari aurre egiteko estrategiak.
9. IRAKASGAIA.- ESTEREOTIPOAK: definizioak eta funtzioak. Eratze-prozesuak: autobetetzen diren profeziak, irudipenezko korrelazioak eta beste batzuk. Sexismoa eta gutxiengo etnikoekiko aurreiritziak: aldatzeko estrategiak.
10. IRAKASGAIA.-GIZARTE PSIKOLOGIA APLIKATUA: OSASUNA eta FAKTORE PSIKOSOSIALAK. ongizate subjektiboaren, zorientasunaren eta osasun mentalaren dimentsioak. Faktore psikosozialak: nortasun-faktoreak, estresa eta euskarri soziala. Aurre egiteko moduak (banakakoak eta kolektiboak) eta osasuna.

METODOLOGIA

Ebaluazio mota jarraia izango denez asistentzia derrigorrezkoa da. Ikasgai honetan metodologia mota ezberdinak uztartzen dira:

Programa teorikoa: eskola magistralak.

Ikasgelako praktikak: Talde-lanak. DVDak ikustea eta eztabaidatzea.

Ordenagailuko praktikak: Gizarte psikologia eremuko galdesorten ezagupena eta analisia, datuen bilketa eta txostenak osatzea eta entrega. Beharrezkoa asistentzia eta parte-hartzea ekintzetan.

Ezinbestekoa da irakasgaia gainditu ahal izateko idatzitako proba gainditzea.

Praktika ataleko nota gordeko da idatzitako proban huts egitean eta praktikak gaindituak dituztenen kasuan.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45		15						
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	67,5		22,5						

Legenda:

M: Maistrala

S: Mintecia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikoak

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 60
- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 40

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatuak izateko, etengabeko eba-luazioan parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du lauhilekoko irakasgaiaren kasuan.

DEIALDIARI UKO EGITEA: "Etengabeko ebaluazioaren kasuan: "deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari"

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ezohiko deialdian (ekainean) ikasgaia gainditzeko baldintzak lehen deialdiko (maiatzeko) berak izango dira. Ekaineko azterketa maitezkoaren osaera berekoa izango da, eta ikasleek lauhilekokoan zehar ebaluazio "jarraitu"aren baitan irabaziriko puntuak aintzat hartuko dira ezohiko deialdian ere (ez, ordea, hurrengo deialdietan).

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Egela plataforma birtualean ikasturtean zehar argitaratuko diren materialak ("power point"-ak, ariketak, testuak, etabar.)

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

1. Baron, R. & Byrne, R.(1998). Psicología social. Madrid, Prentice-Hall.
2. Morales, F.J. (2007). Psicología social. Madrid: McGraw Hill ISBN 8448156080.
3. Morales, J.F., et al. (2008). Método, teoría e investigación en psicología social. Madrid, Pearson. ISBN 978-84-205-4226-3.
4. Páez, D.; Fernández, I., Ubillos, S., Zubieta, E. (2004). Psicología social, Cultura y Educación. Madrid: Pearson/Prentice-Hall. ISBN: 84-205-3724-1
5. Smith, E.R. & Mackie, D.M. (1997) (Ed.). Psicología social. Madrid, Panamericana.

Gehiago sakontzeko bibliografia

Aldizkariak

Interneteko helbide interesgarriak

OHARRAK

Zuzenketa ortografiko, gramatikalak eta idazkera desegokia gutxiegi arrazoa izango dira